

ANGELUKO IKASLEAK.

OSOGUNERO ERAKASKERA
1996-97 - IKASURTEA.

(II)

MUSDE HAGO

Musde Hago ezkondua zen Gazteluberriko primarekin eta biziki aberatsak ziren. Anderea esperantzen zen. Egun batez, bazkariteko, xerri zangoak jaten zituztela, andereari zintzurrerat hexur bat hain gaizki lerratu zitzaien eta han kokatu, nun ez baitzen ez jausten ez igaiten ahal. Gaixo anderea itotzen ari zen. Biharamun goizean hila atxeman zuten ohean. Jauna arras xangrinatua zen eta bere emaztea. Kako eder batean ehortzarazi zuen jaririk: soinean eman-arazi ziozkan bere joia guziak, urrezko erraztun, lepoko, petent, esku-muturreko eta bertze.

Jauregian baziren bi mutil-neskato elgarrekin ezkondu nahiak, bainan diru guti zutenak. Aratsean, mutilak-erran zion neeskatoa:

—Nahuna jean gaiten anderearen emaztunen hatizerat? Saliuko tina-gu. Diru hainitz egini, bizitzeko ukanen dinagu.

—Bainan, ihardetsi zion emazte gaiak, jaunak jakiten badu, preso eman-araziko gaitik edo berdin hurkaraziko.

Musde Hago, ordea, hain zen xangrinatua, ez baitzen ohetik jaikitzen ere. Gauak gauari, bi gazteak badoatzeliz. Mutilak aitzur bat ekarri zuen tonbarene idekitzeko. Han sartu-ta, andereari kendu zioten soinean zuen urte guzia.

Anderea bizi zenean-biziki gaixtoa zen. Hargatik, tonbatik jalgi gabe, mutilak aintzur-giderraz ukaldi bat eman zion lepoaren eta sorbaldaren arte hortan, ziolarik:

—No! Urdesa! Aski sofriarazi naun. Orai hago hor, hila eta sekula-kotz hila!

Bainan, kolpearri esker, hexurra jalgi zen hilaren zintzurretil. Andereak hatsa bildu zuen:

—Oisus! erran zuen emazteak, sendatu nauk! Itotzen ari mindukan!

Mutila eta neskatu, iziturik, ihesari eman ziren, anderea xutitzen zelarik eta tonbatik ateratzen heien ondotik. Bainan Musde Hago hain zen döhatsu bere emaztea bizirik ikustea non barkatu baitzeien bi ohoineri.

Zenbait ilabeteren buruan, andereak seme eder bat eman zuen mandurat, eta jendek zioten: "Musde Hago gaztea sortu baino lehen ehortzia izan zen!"

Nahuna = Nahi dun - a (a interrogatif)
Tinagu = ditinagu.

SEIGARREN ERAKASPENA.

11

(I) ELHEKETA. ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA

- 1- Zerek ito zuen anderea? Nola ehortzi zuten?
- 2- Muthila eta seiak egindu behar zirena?
- 3- Zer erabaki zuten diruaren ukaibeko?

(III) ADITZ SKASKUNTZA

31. Ziozkan 32 Nahuna
33 Joan gaiten 34 ziolarik, zioten
31. UKAN. Conj. à double cpl. Indic. Imparf.

O. Plur. Hari = à elle, à lui C. I. Sing

Nik nizkion = nizkan = Je les lui avais

Zuk zinikion = zinikian = Vous les lui avez

Harek zizkion = zizkan = Ils les lui avait

Guk giniakion = giniakian = Nous les lui avions

Zuek zinikion = zinikaten = Vous les lui avez

Hiekk zizkion = zizkaten = Ils les lui avaient

Emaiteen zizkan = il les lui donnait

32. UKAN. Conj. Familière. Indic. Présent

A. Homme	A. Femme	O. Sing.	O. Pluriel
----------	----------	----------	------------

Nik diat = dinat = je l'ai A.H. A.F.
ditat = ditinat

Hik duk = dun = tu l'as dituk = ditun

Harek dik = din = il l'a ditik = ditin

Guk diagu = dinagu = ns l'avons ditigu = ditinagu

Zuek duzue = duzue = vous l'avez dituzue = ditinez

Hiekk die = dine = ils l'ont ditie = ditine

33. IZAN Subjonctif Présent.

Ni ujan nadin	= que je sois
---------------	---------------

Hi -ii- hadin	= que tu sois
---------------	---------------

Zu -ii- zaisten	= que vous soyez
-----------------	------------------

Hura -ii- dadin	= qui il soit
-----------------	---------------

Gua -ii- gaitezen = gaiten	= que nous soyons
----------------------------	-------------------

Zuek -ii- zaitezten	= que vous soyiez
---------------------	-------------------

Hek -ii- daitezzen	= qui ils soient
--------------------	------------------